


## «GOGOETAK»

**E**gun batian, eztaik nola, liburuxka bat etorri zan nere eskuetara. Etzeukan gainko azala aparta, bañan irakurtzen asi nintzarian, asko ordaindutako liburu askok baño mami aundiagoa zeukala kontuan erortzeko, ez nuen asko irakurri bear izan. Eta ala zion:

«... ia burutik jota zaudenean,  
zure buruarekin zer egin eztaizunean,  
zuaz!, eman pauso batzuk mendi aldera!  
Zuaitz baten azpian exeri, arnasa sakon artu!  
Begiratu iozu zuaitz orreri ondo!  
Izan daiteke zuaitzik txiroena,  
baña bere edertasunak lilluratuta  
utziko zaitu, zure buruataz zearo aztuta...»



Ta ez da gezurra, neri gertatu zait. Olatxo egunak askotan izaten dira, eta liburu txiki artaz oroituta, esan bezela jo nuan mendi aldera, eta eztaikit zenbat denbora igaro nuan nere buruaz aztuta.

— M.G. —